

ANDRA-MARIAREN EZKUTUA

AU DA

ANDRA-MARIA'GANAKO JOPUTASUNATZAZKO (ESCLAVITUD)

EZKUTITZA

Zoriondua Luis Maria Grignon Monfort'arrak

EGINA

PRANTZEZ'ETIK ARTEZ BIURTU DU

ARGIBIDE BATZUK GAÑERATUAZ

JESUS'EN LAGUNDIKO

A. KANDIDO BASABE'K



BIAR DIRAN BAYAKAZ

Salgai Egillearenean, Durango'n
amar eunen (zentimuan)



R. 2919

H. 2814
R. 34757

ATU
20292

ANDRA = MARIAREN EZKUTUA

AU DA

ANDRA - MARIA' GANAKO JOPUTASUNATZAZKO (ESCLAVITUD)

EZKUTITZA

Zoriondun Luis Maria Grignon Monfort'arrak

EGINA

PRANTZEZ'ETIK ARTEZ BIURTU DU

ARGIBIDE BATZUK GAÑERATUAZ

JESUS'EN LAQUNDIKO

A. KANDIDO BASABE'K



BIAR DIRAN BAYAKAZ

Salgei Egillearenean, Durango'n
amar eunen (zentimuan)

AURKIBIDEA

Itzaurrea	III
Oneraskun onen goratasuna	7-8
Santutzia bearrekoa da	8-9
Santutasunerako bideak.	9-10
Andra-Mariaren egikizun eta gorapenak	10-12
Andra-Mariak nola sortzen duan gugan Jesus	12-17
Andra-Mariaganako benetako eraskuna	17-20
Emate onek dakartzkian onak.	20-24
Oneraskun onen barruko egikizuna	24-26
Egikun-itunak (consejos prácticos)	26-27
Oneraskun onen ekarriak (frutuak).	27-30
Oneraskun onen ateko (kanpoko) egikizunak	30-32
Jesu-kristori Andra-Mariaren bitartez eskintzea	32



ITZAURREA

*Nor zan Z. Luis M.^a Grignion
Monfort'arra*

Z. Luis M.^a Grignion Monfort'arra Monforle-Cane'n, Prantzian, jayo zan 1673'g. Jesusen Lagundiak Rennes'en zeukan ikastolan (kolejiuan) azi ta gero, Paris'en, San Sulpizio'ko apaizikastolan (semiñariuan) ikasketak osotu ta apaiz egin zan. Poitiers'ko gaixotegiko (ospitaleko) kapi-lhautziaz naikotu bage, erririk-erri mixiuak ematen zebillela, eleiz-batzar bi asmatu zituan; bizikera bi onei zegozkienak: *Jakituri - Alabena* (Karidadeko Aizten antzekoa), gaixoak zaintzeko; ta *Andra-Mari-Lagundia*, mixiuak emateko.

Gutziko mixiolari ona zan. Irakastegi (pulpitorea) igo, ta Jesus Kurutzekoari begira geratzen zaneko, itzik esan bage, negarrez ipinten ebazan entzulak.

Neurtizlari (bertzolari) ta abeslari (kantore) ona izanik, neurtitz eta abestiakaz barrurago sartuta uzten zituan irakastegitik zabalduko irakaskizun eta biozketak (sentimentoak). Gutziz gogozkoak zitualako agurtza (errosariua), Andra-Mariaren eleizetara bidaldiak, eta bere Eleiza ta irudiak berriztu ta apaintzia: beraganatu

zituan Jesus'en Biotz eta Andra-Mariaren oneraskunaren (deboziuren) arerio Jansen'tarren amorru ta ezetsiak. Euron gezur eta azerikeriak iruzurtuta, ez bakarrik gotzaiñak (obispoak) kendu zioten sarritan aitorkuntzak (konfesioak) entzun, meza eman, eta mixiuak egiteko eskubidea: baita adizkideak ere zorotzat artu, ta erritarrak berak erriko ateak ichi zizkioten: aita-turiko Jakituri-alaben batzarrerako neskatil bi baño ez zituan batu amar urtean, eta mixiolaririk bi baño ez zituan utzi, il zanean. Samintasun eta areriotasunezko olatuetan noiz-itoko, bizi izan zan beti Luis Maria. Baña Andra-Mariaren laguntasun eta S. Iñazioaren ejertziuetan artzen zituan indarrez, beti baketsu, beti gozatsu, beti bere sallari aurrera; erriak Jesus'egana biurtzen zituan; eta berak zuzentzen zituan arimak, santutasun andira eltzen ziran; arik-eta 1716'g. santutasun-usaiñaz illarte. *Ezkutuan* ematen dizkigun erakutsiak, izan ziran bere burua ta beste asko ain urte guchitan santutasun ain andira eroan zituztenak.

Baña, il da gero ere, diabruak ez zion bakian utzi; ta ainbeste on egin bear zuten irakaskizunok, liburutegi bateko auspean egon dira, zorio-nekoak berak aurretiaz esan zuan lez; arik-eta agertu arte 1844'g. urtean *Andra-Mariaganako Benetako Eraskunia*, ta asko oraintsuago liburu onetako erakutsiak laburrago ta argiroago dakartzkian gure "*Ezkutu*," au.

Liburuchu bi onek, agertu ziraneko, alde guztietara zabaldu izan ziran, onik andiena era-

manaz. Aita Santu Pío X^{ak}, zioan lenengoagaitik: "Auxe bai dala liburu benetan ederra; berriro irakurri bear izan det, nere Andra-Maria'tzazko guzti-eskutitza (encíclica) egiteko". Eta gero: Ben-benetan agintzen degu Z. Grignon Monfort'arrak ain egoki egindako liburu au, ta irakurlei apostolu-onestia biotzez ematen diegu. Friburgo'n oraintsu euki izan dan Andra-Mariabatzarrian ere, eraskune au al dan geyen goratuta gero, agintzen zaye oneraskun-zabaltzalliei oneraskun au zabaldu dezatela.

Ba Andra-Mariaganako oneraskun benetako, mamintsu, ongille au alde guztietara zabaldu, ta liburuchu au ainbeste izkuntzetara biurtu dan ezkerro: lotsari izango litzakigu Andra-Mariaganako zaletasun ain barrukoa euki izan eta daukagun euskaldunoi, liburuchu au euskeraldu bage euki, ta oneraskun au irakatsi bage geratzia.

Artu, ba, Andra Mari maite-maiteorrek, gari-xuma ta bere osteko lanetatik atsedan apurchu bat artzen asi geraneko, zure eskuetan ipinten dizugun liburuchu au: zuk zabaldu, zuk zaletu euskaldunak irakurtera, zuk beren barruetan irakurri; zeuk sartu oneraskun au beren biotzetan, beren mendietako aritzak baño barrurago; ta berarekin zугanako maitetasun zintso ta iraukorra.

Durangon, Mariaren illaren lenengoan, 1914'g.



ANDRA-MARIAREN EZKUTUA

Oneraskun onen goratasuna.

¡Arima zerurakotua! (1)

Ona emen Jaungoikoak irakatsi didan ezkutu bat; eta liburu, ez zarrían, ez berrian, aurkitu ezin dedana. (2)

Baña iru gauza onek egitekotan: 1.º Edozeñeri ez erakutsi, beren erregu, ukar (limosna), nekaldi, ezetsi (persecución) ta buru-ukatze ta arima zaletasunagaitik zor zayenei izan ezik. (3)

2'g. Santu ta zerutar izateko baño ez artu; eztalako agertzen ezkutu onen aunditasuna, eskuartean erabilli ezik. Ez zaitezala, gero, egon besoak auma dezuzala, bearrik egin bage; ba or-

(1) Ezta errez jakiten arima au nor zan. Uste izatekoa da Zorionekoak irasi (fundau) zituan Jakituri-alabetako lekaime (erligiosa) bat zala.

(2) Zorionekoak irakasten digun oneraskun au, berez, ezta berria; ba lenago irakatsi zuten askok, eta euren artean, A. Kalatayud, gure A. Kardaberaz'en lagun barru-barrukoak, eta uste izatekoa da beronek ere euskaldunei irakatsiko ziela Jesus'en Biotzenagaz batean. Baña ez du iñok Z. Monfort 'ek lez, oneraskun au ain gunetik artu, ez beragaz Santutasun andirako bide erraz eta zuzena egin; ona zegaitik deitzen dion *ezkutua*, ta dion liburu ez zarrían, ez berrian ez dula aurkitu, Espiritu Santuak irakatsita baño.

(3) Jansen 'tarren ezetsiz inguratuta zegalako, esango zuan au zorionekoak. Gaur ez dago olako ardurarik, eta zenbat zabalduago, obe; E'nsiedeln'ko Andra-Mari-batzarrian irakatsi dan lez.

duan nire ezkutu au lupu (bereno) biurtu ta zure kalterako izango da.

3'g. Zor ez zaitzun ezkutu au irakatsi dizulako, egunoro Jaungoikoari eskarrak egin.

Egunoroko zure zeregiñetan nola erabilli, ala ikusiko dezu, ezkutu onen sal-neurri ta goratasuna; ba lenengotan, zure utsegin aundi ta ugari ta ixilleko zurekoitasunagaitik (amor propio), ez zaitzu agertuko.

Egia ezagutzeko gerez daukagun gurariaz ariñegi aurrera igaro baño lenago, esan gogoz, belauniko, *Ave Maris Stella* ta *Veni Creator Spiritus*, ezkutu au ondo ezagutu ta beragana zalezeko laguntasuna Jaungoikoari eskatuaz. (1).

Asti guchi daukagun ezkerro, zuk irakurteko, ta nik idatzi (eskribitzeko), laburrean esango dizut.

Santutzea bearrekoa da.

iJaungoikoaren irudi bizi ta Jesus'en Odol ederraz erositako arima ori! Jaungoikoak zugar nai duana da zure bizitza onetan, bera lez santua izan zaitezala, bera lez zoriondun izateko. Zure dei (bokaziño) ziurra Jaungoikoaren santutasuna zugarantzia da; ara or nora zuzendu bear dituzun zure gogapen (pentsamentu), gurari, itz ta egiteak, zure neke ta bizitzako zirkin guztiak; osterontzean Jaungoikoakin aurrez za-

(1) Ez guchitan euki eskatzeko itune (kontzeju) au: guchi badira ezkutu au sakonetik artzen dutenak, argi-emale Espiritu Santuari eskatzen ezdiotelako da.

bilkez, eta ez dezu betetzen zu egin ta orain ere zu iradautean (conservar) euki duan asmoa. Autsa argi biurtzea, zatarreria garbitasun, pekatua santutasun, izaki (creaturea) irazale (creadore), gizona Jaungoiko egitea: iau egikizuna! Egikizun arrigarria, esan bear det ostera ere, baña gaitza; ta gure izateari bakarrik begiartuta, ezin dana. Jaungoikoa da bakarrik bere laguntasunaz, eta laguntasun ugari, ta oi dan baño aundiagoaz, amai onera ekarri lezakena; mundu osoa egitea, utsa da egikizun onen aldean.

Santutasunerako bideak.

Eta zuk ¿nola irichi? Jaungoikoak deitzen zaitun tokira igoteko, ¿zer egin? Santutzeko artu bear diran bideak, guztiak dakizkitez; Ebanjelioan daude argi; gogo-artezkariak (aita espiritualak) irakatsi dituzte. Salbatu ta betetasun aundira eldu nai dutenentzat, bearrekoak dira: biotzeko apaltasuna (umiltasuna), etengabeko eskariak, gauza guztietan burua ukatzea, Jaungoikoaren eskuetan uztea, ta bere guraria betetzea.

Salbazio ta santutasunerako bide onek artzeko, Jaungoikoaren laguntasuna nai-ta-ezkoa da, ta laguntasun geyago edo guchiago edonori ematen zayo; onetan eztago ezta-bai-darik. *Geyago edo guchiago* esan det; ba Jaungoikoa neurri bage ona da, baña ezdie guztiei laguntasun berdiñik ematen, bakoitzari naikoa dan aña eman arren. Arima sutsuak, laguntasun andiaz, egikune aundia beteko du; chikiagaz, chikia.

Jaungoikoak eman eta arimiak artzen duan laguntasuna da, ba, orduan, gure egikunak goratu ta edertzen dituana.

Egi onek ziurrak dira. Guztia dago, orduan, santutuko gaituan laguntasun au iristeko bide erraza aurkitzean. Ba, orain diot, laguntasun-ori aurkitzeko, Andra-Maria aurkitu bear dala.

Andra Mariaren egikizun eta berarizko gorapenak.

1.º Andra-Maria da bakarrik Jaungoikoaren laguntasuna aurkitu duana, beretzat ta gizon bakoitzarentzat. Ez erkaba (patriarkak), ez igar-lariak, ez lege zarreko beste santuak, ez dute aurkitu izan laguntasun au.

2'g. Bera da laguntasunaren Egilleari izatea ta bizia eman dizkiona, ta onegaitik deitzen zayo *laguntasunaren Ama, mater gratiæ*.

3'g. Emakai ta laguntasun guztien iturburu, Jaungoiko Aitak, bere Semea emanaz, laguntasun guztiak eman dizkio; ain ze, San Bernardok dion lez, beragan eta berakin, Jaungoikoaren naimena (borondatia) ere beretzat eman zayo.

4'g. Jaungoikoak autu du bere doayen emaletzat; augaitik bere emakai ta laguntasun guztiak, Andra Mariaren eskuetatik igarotzen dira; ta eskubide onegaz, San Bernardo'k dion lez, ematen ditu Betiko Aitaren laguntasunak, Jesu-Kristoren ekanduon (birtutiak) eta Espiritu

Santuaren doayak, nori-nai, nola-nai, noiz-nai, zenbat-nai.

5'g. Umeak, izatez, aita bat eta ama daukan lez; baita izatez-gañetik ere Eleizako benetako semeak, Jaungoikoa euki bear du aitatzat, ta Andra Maria amatzat; eta Jaungoikoa aitatzat daukala-ta, poztu baliteke, Andra-Maria amatzat euki bage; diabrua aitatzat daukan iruzurturiko (engañauriko) bat baño ezta.

6'g. Andra - Mariak autatuen buru, Jesu-Kristo, tayatu (formatu) duan ezkerro; berari dagokio buru onen zatiak, beste Kristauak, tayatzea ere; ba ama batek ez du egiten bururik beste zati bage; ez beste zatiak, buru bage. Orduan, Jesu-Kristoren zati izan nai duanak, Andra-Mariagan tayatua izan bear du Jesu-Kristoren graziaz; ba orretarako artu du Andra-Mariak graziaren betetasuna, Jesu-Kristoren zati ta benetako santuei emateko.

7'g. Espiritu santuak Andra-Mariakin batu-ta, beronegan, beronen bidez, ta beronegandik egin zuan bere egikune nagosia, Jesu-Kristo, Jaungoiko-gizondua. Baña iñoiz oraindik utzi ez dun lez Andra-Maria, beti dago, beronegan eta beronen bidez, ezkutuan, baña benetan, zerurako autatuak egiten.

8'g. Andra-Mariak Jaungoikoagandik berarizko eskubidea artu du, arimak Jaungoikoagan janaritu ta azteko. San Agustin'ek dio, zerurakotu guztiak Andra-Mariaren errayetan sartzen dirala; ta eztirala urteten, Ama maitalari onek betiko bizitzarako argitaldu nai dituanean baño.

Orduan, ba, umeak beren janaria amagandik beren erara ateratzen duen lez; baita zerurakotuak ere Andra - Mariagandik ateratzen dute beren janari ta indarra.

9'g. Andra-Mariari Aitak esan dio: "*In Jacob inhabita*," "ene alabea, zure bizitokia Jacob'egan, au da, neureakan ipiñi egizu". Semeak berriz esan dio: "*In Israel hereditare*, zure jaraunsia (erentzia) Israelen, au da, zerurakotuetan ipiñi egizu". Azkenez Espiritu Santuak esan dio: "*In electis meis mitte radices*," bota sustarrak, ene maite orrek, neure autatuetan. Edozein autatuk dauka, orduan, Andra-Maria bere bizi-laguntzat; au da, bere ariman dauka, ta an botau eragiten dizkio apaltasun sakon, maitetasun gartsu ta beste ekanduon (birtute) guztien sustarrak.

Andra-Mariak nola sortzen duan guban Jesus.

San Agustin'ek 'deitzen dio Andra-Mariari, *forma Dei*, Jaungoikoaren orke (molde) bizia; baita izan ere; ba bere barruan egin zan Jaungoiko-gizona, ta Jaungoikotasun oso-osoaz, gauzarik chikienean utsik eman bage, egin zan. Ba, orduan, gizona ere bere barruan, aldan lez, Jesusen laguntasunagaz Jaungoikotuta geratuko da.

Irudigiñak era bitara atera lezake irudia: 1.º Bere alegiñez; bere indar, jakituri ta erremintakaz. 2'g orke (moldean) aterata. Lenengoa lan luzia ta gaitza da; ta, gañera, charki emandako mallukada bategaz, dana galdu liteke.

Bigarrena, berriz, ariña, erreza, biguña, bear ez domu (koste) bagekoa, orke (moldea) ona ta atera bear dan gauzaren antzekoa; geya, berriz, samurra ta eskuan erabilten erreza izan ezkerro.

Jaungoikoaren orke (molde) aundia, Espiritu Santuak egiña, Andra-Maria da: anche egin zan, notiñezko batzakuntziaz (Union hipostática), Jaungoiko - gizona. Ba anche bertan, graziaz, Gizon-Jaungoikoa ere tayatzen (formatzen) da.

Orke (molde) onetan eztago utsunerik; bertara bota ta orketzen (moldatzen) izten dan guztiak, Jesu - kristoren antza artzen du; ta artzen du gozaro, ta gizonen makaltasunari dagokion lez, estutasun ez neke aundi bage; artzen du ziur ta iruzur edo engañuen bildur bage, ez daukako diabruak sartokirik Andra-Mariagan; eta azkenez artzen du santutasun eta garbitasun aundia pekatu chikienaren gerizarik ere bage. A ze bardineztasuna dagon, geyenak oi duten antzera, beren jakituri ta indarrei jagita, Jesusen antzeko egiten diranen artean; eta bigun-bigun eginda, urtuta, norberaren erechitasun bage, Andra-Mariagan jaurti, eta bertan, Espiritu Santuari erabilten utziaz, bear eder ori egiten dutenen artean. ¡Zenbat loi, zenbat utsune, zenbat illuntasun, zenbat iruzur (engañu), zenbat izakeri (defectos naturales), zenbat gizakeri (defectos humanos) lenengoetan: besteak berriz ze garbi, ze Jaungoikotar, ze Jesusen antzeko!

Ez ditu iñun agertu Jaungoikoak, ezta agertuko ere, Andra-Mariagan baizen ondo bere barruko ta ateko (kanpoko) edertasun eta betetasunak.

Andra - Maria Jaungoikoaren atsetegi (parai-xua) ta bere ezin-esanalako mundua da; mirariak egiteko, bera zaintzeko ta bertan atsegin-tzeko, sartu zan Andra-Mariagan Jaungoikoaren Semea. Mundu bat egin zuan Jaungoikoak gizon bideztiarentzat, gu bizi gerana; beste mundu bat egin zuan gizon zoriondunentzat, zerua; baña beretzat egin zuan beste bat, eta izentau zuan MARIA, mundu ez ezaguna lur onetako geyenentzat; ulertu ezin-dakoa, zeruko aingeru ta zorionekoentzat ere: onek ikusten dutenean Jaungoikoa ain goi, berakandik ain urrunduta, bere mundu Mariagan ain ezkutauta, geratu bage deadar egiten dute: isantua, santua, santua!

Zorionekoa, ta milla bidar zorionekoa lurrean, Espiritu Santuak Andra-Mariaren ezkutua, eza-gutzeko, agertzen dion gizona; baratz (ortu) ichi au, sartzeko, zabaltzen diona; ta iturri ezaupide (selluaz) ichia edekitzen diona, grazizko ur bi-ziak atera ta ao-betean edateko.

Gizon onek Jaungoikoa bakarrik, izaki (criatura) bage, aurkituko du izaki maitegarri onetan; Jaungoiko neurri bage santua ta goratua, ori bai; baña bat batera gure gurariak bete nairik dabillena, gure argaltasunentzat guztiz ego-kia. Jaungoikoa toki guztietan dago; orregaitik toki guztietan aurkitu liteke; baña Andra-Mariagan baizen errez eta gure argaltasunentzat egoki, iñun ere ez; orretarakoxe beragana jatsi da-ta. Alde guztietan da Jaungoikoa senduen eta aingeruen ogia; baña Mariagan umien ogia da. (1)

Ez dezala, ba, iñok uste izan, *argituak* zeri-
tzaten ziñestausle (erejiak) lez, Andra-Maria,
izakia (criaturia) izanik, Jesusekin bat egiteko
eragozpena dala. Ez da Andra-Maria bera, bizi
dana; Jesu-Kristo bakarrik, Jaungoikoa bakarrik
bizi da beragan. Berak daukan Jaungoiko-antzak
San Paulo ta beste santuenari, zeruak lurrari
egiten dion aldia baño andiagoa egiten dio.
Bakarrik Jaungoikoarentzat egin zan Maria; ta
arimak berakin lotuta euki bage, artu ta Jaun-
goikuagana jaurti ta beronekin bat egiten ditu:
zenbat berarekin batuago, Jaungoikoakin ere
estuago. Andra-Maria oyartzun (eco) arrigarria
da; *Maria* deadar egindakoa, *Jaungoikoa* baño
ez du erantzuten, *zorionekoa* deitzen zayonian.
S.^{ta} Isabel'ek egin zion lez, Jaungoikoa bakarrik
andiesten (alabaten) du. Gezurrezko argituak,
eskarietan beretan diabruak iruzurtu (engañau)
zituanak, ez ziran, ez, ain bildurgarriro jausiko,
Andra-Maria billatu balute, ta Andra-Mariaren
bitartez Jesus'egana, ta Jesusen bitartez Jaungoi-
koagana eldu baziran: Andra-Maria aurkitu
duanak, ta bere ta Jesusen bitartez Jaungoikoa,

(1) Gogakizun ederra, Jakituri-liburuan agertzen dana. "Eldu; jan,
nik ematen dizutedan ogia, ta edan naztuten dizutedan ardua". Eta
egiaz Andra-Mariaren ezkutu au ondo artzen duanakin, ama umechoakin
lez, dabil Andra-Maria; guban daude umien makaltasun eta biar-izanak;
Andra-Mariagan amaren maitetasun indartsu ta nekatu ezin dana, danari
begiratu ta dana errestuteko. Eztaukagu beronen eskuetan geratzia baño,
ume-antzera dana bere mendian ipiñiaz. Eztago, ba, zetan arritu ain beste
aurreratzen badira oneraskun (deboziño) au artu ta jarraitzen dutenak:
Jesus Umien A. Teresa, 24 urtegaz santutasun-usaiñian 1897'g. ill, eta
ainbeste mirari egiten dituz dituzanak, esan lezake.

on guztiak aurkitu ditu, diote santuak, *Inventa etc. Guztia* dionak, bat ere ez du uzten, laguntasun guztia, Jaungoikoagan adizkidetasun guztia, Jaungoikoaren areriuei jarkiteko ziurtasun guztia; gezurrari ezesteko egi guztia; salbaziñoko eragozpenetan erreztasun eta menderatze guztia; guztia gozotasuna, guztia poza bizitzako mingoztasun eta atsekabiñetan.

Ezta esan nai, egizko oneraskunaz Andra-Maria aurkitu duana, kurutze bage, atsekabe bage biziko dala. Bai geyago eukiko ditu; ba Andra-Mariak, bizen ama izanik, bizitzako zugatz-(arbola) zatiak, kurutze-zatiak, emáten dizkie bere umiei. Baña gertatzen dana da, kurutziak ematen dizkienean, iraupen eta gozotasunez eramateko laguntasuna ere ematen die; ta onan beriei ematen dizkien kurutziak, gozozko kurutziak edo kurutze gozatuak geyago dira, garratzak baño. Eta iñoizko aldian edontzi (kaliziaren) garratzasuna asmaten (sentitzen) badute, Jaungoikoaren adizkidiei nai-ta-nai-ez gertatu biar zayen lez, atsekabe-ostian Ama onek dakarren atsegin eta gozotasunak, kurutze aztunagoak eta garratzagoak eramateko, neurri bage azkortuta (animatuta) uzten ditu. Grazi ugaria aurkitzeko, Jaungoikozko Andra-Maria benetan aurkitzean, orche dago untzia. Gauza guztien jabe izanik Jaungoikoa, eman lezake berak berez, geyenean Andra-Mariaren bitartez baño ematen ez duana; ta egiten ez duala ere, azarkeri (atrevimiento) bage ezin esan leiteke. Baña Jaungoikoaren jakituriak erabakita daukanez, grazizko

gauzetan ez dauka geyenean gizonakin artu-emanik, Andra-Mariaren bitartez izan ezik, dio Akino'tar S.^{to} Tomas'ek: Jaungoikoagana igo eta berakin batzeko, naita-ez artu bear da bitarteko, berak gugana jatsiteko, guri graziak ekarteko artu zuana. Ba bitarteko au Andra Mariaganako benetako eraskuna da.

Andra-Mariaganako benetako eraskuna.

Andra - Mariaganako benetako eraskun asko daude, ba gezurrezkuatzaz ez det nai emen ezer esan. *Lenengoa* da norberaren egin-bearrak betezea, pekatu aztuna utzita; maitetasunez, bildurrez baño geyago, egin; eskatu noizian-bein Andra Mariari; ta, Jaungoiko-ama lez, goratu, al dan bestian.

Bigarrena dago Andra-Mariaganako gorapen, maitetasun, icharopen, eta gurkunezko (adoraziñoko) biozketa (sentimentu) goratua-goak eukitzean. Au daukana, zaletzen da agurtzako (errosarioko) anaidi (cofradian) nai karmengoan sartzen, Andra-Mariaren irudi ta altarak gurtzen (adoraten) ditu, bere gorespenak (alabantzak) zabaltzen ditu, ta ematen du izena bere eleizbatarretarako ere. Santua ta goragarria da oneraskun au, pekatu aztunetik aldentzen duanean; baño ez da urrengoa baizen osoa, ez arimak izaki (kriaturetatik) aldentzeko ain egokia, ezta norbera bere buruagandik kendu, ta Jesus'ekin batzeko ere.

Irugarren Andra Mariaganako oneraskuna,

guztiz guchik ezagutu ta betetzen dutena, nik zuei, arima zerurakotuo, erakutsi bear dizutedana da. Eta dago *Andra Mariari, ta Andra Mariaren bidez Jesus' i, dana, jopu* (esclavo) *antzera, ematean; eta, gañera, gauza bakoitza* MARIAGAITIK, MARIAKIN, MARIAGAN, eta MARIARENTZAT *egitean*. Itz onek azaldu bear ditut.

Egun izentatu bat artu bear da, guztia eman eta beretzakotu gaitez; eta au egin bear da gogo osoz, maitetasunez, bildur bage, oso-osorik, zekenkeri bage (ezer utzi bage): gorputz eta arimia, ateko (kanpoko) ondasunak, au da, echea, sendi (famelia) ta ogasuna (azienda); arima-barrukoak, eta dira irabazki (meritoak), esker (graziak), ekanduon (birtutiak) ta kitubide (satisfaci6n), guzti-guztia eman eta ipiñi bear da Andra-Mariaren eskuetan.

Begiratu bezake, oneraskun onezaz gizonak geyen maite duana, lekaide (erligiosoak) berak ematen ez dutena, Jesusi Andra-Mariaren bidez ematen zayola, au da norberak bere eskari, ukar (limosna), nekaldi ta kitubideakaz (satisfaci6n) nai duana egiteko daukan eskubidea; utzirik dana Andra Mariaren eskuetan, berak nai duanari, Jaungoikoaren goratasun andienerako, eman dezayon.

Ematen zayo, ba, gure egikizun on guztien kitakortasun (1) eta jariskortasuna, baña ez-kintza (boto) bage; (2) eta augaitik, eskintze au eginda gero, ez gera gure egite onen jabe:

(1) Ikusi onen azaldueria nure Eleiz-liburuchuan 123' g-orriald.

(2) Ezta, orduan, onegaz pekatuaren beyan ezetan lotuten.

Andra-Mariak zuzendu litzake, nai dala garbitokiko arima bat ateratzeko, nai dala pekatari errukarriren bat biurtzeko. Gure egite onen sarikortasuna egia da ezin inorenzat eman genezakela; baña gure irabazki guztiak ere Andra-Mariaren eskuetan ipinten ditugu, berak zaindu, geitu ta edertu ditzan.

Eman ezkerro, ba, gure egite on guztiak, garbitokiko arima bati lagundu nai badiogu, edo pekatariaren bat zuzendu, edo adizkideren bat sendotu, Andra-Mariari apal-apal eskatu bear diogu, ta berak egiten duanaz naikotu; ba gure egite onen irabazkiak Andra Mariaren eskuetan (da esatea, Jaungoikoak bere doayak zabalteko artu dituan eskuetan) egon ziur, ez dira galduko.

Oneraskun au *jopu* (esclavo) *antzera* Andra-Mariari dana ematean dagola, esan det. Iru eratakoak dira jopuak, lenengo *izatez*; olan, onak eta deungak guztiok gera Jaungoikoaren jopuak. Bigarren *naita-ezian*, diabru ta kondenatu guztiak diran lez. Irugarrena da *maitetasun eta gozko* joputasuna. Ba onetaraxe eman bear gatzazkio Jaungoikoari Andra-Mariaren bidez, izaki (kriatura) bat bere egilleari eman litzakikeon ondoen eta osoen.

Begiratu bezake, gañera, jopu ta otseñiaren artean dagon aldea; otseñiak bere egikizunagaitik irabazia nai du, jopuak ez. Otseñiak nai duan utzi lezake ugazaba; jopuak ugazabarik ezin utzi leza, beti dago berari lotuta. Otseñiak ez dio ematen ugazabari bere bizi ta eriotziar-

en gañean jabetasunik; jopua, berriz, bere jabeak il ere egin lezake, bidebagetasun bage.

Gogorregia da joputasun au gizartean egote-ko. Jaungoikoakin bakarrik dagokio ongi gizonari eukitzea; orregaitik, kristar-artean ez dago; turko eta beste ziñesbakoetan baño ez da aurkitzen. ¡Zorionekoa, ta milla bidar zorionekoa, maitetasunez jopututa, diabruaren joputasun gogorra batioan jaurtita, Andra - Mariaren birtartez Jesus'i oso-osorik ematen zayon arima!

Emate onek dakarzkian onak.

Argi asko bearko nuke egikizun onen goratasuna adierazteko; bakarrik esango det azaletik.

1.º Jesus'i Andra Mariaren bidez ematia, Aita Jaungoikoak egin zuanaren antzekoa da; ba Andra-Mariaren bidez bere Semea eman digu, ta, bere bidez izan ezik, laguntasunik ere ez digu ematen. Seme Jaungoikoaren antzekoa ere bada; ba lurrera Andra-Mariaren bidez etorri zan; onegaz erakusten digula, bera guganatu zan bidetik, gu beragandu bear gerala. Azkenez Espiritu Santuaren antzekoa izatea da; ba berak ere, Andra-Mariaren bidez izan ezik, ez dizkigu ematen bere laguntasun eta doayak. "¿Ez ote-da egokia, dio San Bernardo'k, etorri zaigun bidetik eskerra (grazia) bere egilleari biurtzia,?"

2'g. Andra Mariaren bidez Jesus'egana elduttia, Jesu-Kristo goratzia da; ba orrela adierazo-

ten degu, ez gerala iñor, gure pekatuagaitik, beragana zuzen eltzeko, ta bere Ama bear degula bitarteko ta laguntzalletzat. Gañera, orrela ez bakarrik gure bitarteko ta anai Jesus'egana urreratzen gera, baita auziepallearen aurrean ere beeratzen gera: auxe da Jaunari biotza ostutzen dion apaltasuna bete-betean guganatzea.

3'g. Andra - Maria bitarteko degula Jesuseganatzea, gure egikune guztiak gure Ama onen eskuetan ipintzea da. Gure egikunak, onak diruditenean ere, askotan loituta daude, eta izarr-etan eurretan loya aurkitzen duan Jaungoikoak, artu ez eze begiratzea ere ez zaye zor. Eskatu dizayogun, ba, gure Ama ta Jabe onari, gure eskintzari ezerezok artuta gero, berak garbitu, santutu, goratu ta edertu ditzala, Jaungoikoaren aurrian agergarriak izan ditzen. ¿Zer izango ote-litzake, maistar (errenteroak) erregeri, urtekoa ordaintzeko, arduñ sagar bat emango balio? Ba guchiago dira gure arimako ondasun guztiak Jaungoiko gure ugazabaren aurrean. ¿Zer egingo luke gixaiso arek, burua eukitzean, Erregiñakin sarlekurik baleuka? ¿Ezlioike kenduko arjua ta ustela, ta urrezko platerian lora-artean agertuko? Eta erregek eluke artuko iguin (repugnancia) bage, pozik, emakaya, ain maite duan erregiñaren eskuetatik? Ba, diño San Bernardo'k: "*Modicum quid offerre desideras? Manibus Mariæ tradere cura, si non vis sustinere repulsam.* ¿Zer-edo-zerchu eskiñi nai dezu? Andra-Mariaren eskuz eman egizu, atzera botatia nai ezpa-dezu. ¡Ai, Jaungoiko maitea!

ta, ze ezer-eza dan egiten degun guztia! Baña oneraskun onegaz Andra - Mariaren eskuetan ipiñi dezagun. Aldegun lez, guztia bere gorapenerako utzita, oso-osorik ematen bagatzakio: berak, neurri bage esku-zabalagoa izanik, baten ordez, eun emango dizkigu; bera batuko da gure irabazki ta ekanduon edo birtutiakaz, berak ipiñiko ditu geure ezkontzariak bere maite-sunezko urre-platerian; berak, Rebeka'k Jacob lez, jantziko gaitu, beragan dauzkan bere len-seme ta bakar Jesu-Kristo'ren soñeko ederrakaz; eta orrela, beragaitik gure gauza guztietatik billoiztu geran ezkerro, bere jopu ta echekoak lez, bere soñeko bikoitzakaz jaintziko gaitu: *Omnes domestici ejus vestiti sunt duplicibus*. Jesus eta Mariaren soñeko, bichi, usain-gozo, irabazi ta ekanduon (birtute) guztiak, dan-dana izango da Jesus eta Mariaren jopuentzat.

4'g. Orretara Andra Mariaganatzea, lagun urkoen aldez maitetasunik goriena eukitzea da; guk gauzarik aundientzat daukaguna, Andra-Mariari bizi ta illen aldez ematen diogulako.

5'g. Oneraskun onegaz gure esker (grazia), ekanduon ta irabazkiak meritoak, tokirik ziurtenean ipintzen ditugu, Andra-Maria guztien gordetzalle egifiaz; esango bagio lez: Artu, nere jabe maite orrek; orra zure semearen laguntasunaz egin dedan ona; makala naiz ta iraupen bakoa, gau ta egun ezesten nauten areriak berriz asko ta gaiztoak. Ez naiz gauza gordetzeko. Libano'ko zugatz-(arbola) tantayak egu-nero dakuskigu basatzen ondatuta, ta eguzkiraño

igoten ziran arranuak, gau-chori biurtuta. Milla gizon on jausten dira nere eskerretara, eskumatarara, berriz, amar milla. Baña zuk, altsua baño altsuago zeran nere Erregiña orrek, eutsi ni, jausi ez nadin; zaindu nire ondasunak, oztu ez dizadaten; zure zainpian (depositoan) uzten ditut nere aberastasun guztiak. *Depositum custodi... Scio cui credidi...* Ezagutzen zaitut, orregaitik bete-betea zugaran ziñesten det (fietan naz). Jaungoikoa ta gizonakanako zintsoa zera, ta zure zainpean ipintzen dan gauzarik, ez dezu galtzen utziko; altsua zera, ta ezin iñok gaitzik egin lizatzuke, ez arrapau eskuetan daukazunik. *Ipsam sequens, non devias* (bere jarraian, eztago galbiderik), *ipsam rogans, non desperas* (berari eskatuta; etzera ustegetuko (desesperatuko); *ipsam cogitans, non erras* (bera gogoratuta, ez dezu utsik egingo); *ipsa tenente, non corruis* (berak eutsita, ez zera jausiko); *ipsa protegente, non metuis* (berak lagunduta, eztaukazu bildurrik); *ipsa duce non fatigaris* (berak zuzenduta, eztaukazu nekerik); *ipsa propitia, pervenis* (beragazkoa eukita, elduko zera (kaira, portura). Eta beste toki baten: *Detinet Filium, ne percutiat* (geratzen du Semea, zigortu ez dezan); *detinet diabolum, ne noceat* (geratzen du diabrua, kalterik egin ez dezan); *detinet virtutes, ne fugiant* (geratzen ditu ekanduon edo birtutiak, iges ez dezaten); *detinet merita, ne pereant* (geratzen ditu irabaziak, galdu ez ditezen); *detinet gratias, ne effluent* (geratzen ditu laguntasunak, iges ez dezaten). San Bernardo'nak dira itz onek, esan nai de-

dana ondo azaltzen dutenak. Jaungoikoaren esker (grazia) ziur zaindu ta geitzea baño besterik ezpa-lego ere eraskun onetan, naikoa litzake gogorik beroenaz artzeko.

Eraskun onek arima Jaungoikoaren semeen azkatasunaz azkatatuta ipintzen du, Andra-Mariaganako maitatasunaren jopu egiten dalako.

Andra maite onek, ordez, zabaldu ta aunditzen dio biotza, ta gabelua baizen arin daroa Jaunaren aginduetako bidean; kentzen du mingoztasuna, illuntasuna ta kezka. Eraskun auxe irakatsi zion Jaungoikoak Jesusen Iñes'i bere atsekabe ta ezta-baida aundietatik urtetzeko (1). "Egin zaite, esan zion, nere amaren jopu". Egin eta batean, kendu zazkion bere atsekabeak.

Eraskun au goratzeko, ekarri litezke Aita Santuak eman dizkioten parkapenak, obispoen erabakiak, asmatu diran Eleiz-batzarrak, eta artu ta bete dituen santu ta beste gizon andien erakutsiak (ejenpluak). Baña ixillian uzten det guztia.

Oneraskun onen barruko egikizuna.

Esan det oneraskun au dagola, gauza guztiak *Andra-Mariaren bidez, Andra-Mariakin, Andra-Mariagan eta Andra-Mariarentzat* egitean.

Ezta naikoa Andra-Mariari joputzat bein bakarrik ematea, ezta au illero ez aztero egitea ere.

(1) Sto. Domingon Anaidiko lekaima (erligiosia), 1634'g. Langeak (Auvernian) Santutasun-usaïean il zana.

Igarokorra izango litzake oneraskun au, ta ez luke gizona al duan bestean goratuko.

Ezta ain gaitza Eleiz-batzar baterako norberaren izena ematea; ezta oneraskun au artu, ta agindutako eskari batzuk egitea ere: gaitza dana da oneraskun onen barruan, bere izakeran, sartzea; au da, arima Andra-Mariaren jopu ta bere bidez Jesusena ere izatea; beren menpean beti bizitzea. Asko ezagutu ditut garrik aundienaz oneraskun onen azaleko egikizun batzuetan jardun dutenak; baña guchi bere barruan, bere gungunean sartu diranak; guchiago artutakoan iragongon dutenak.

1.º Oneraskun au dago gauza guztiak ANDRA MARIAREN BIDEZ egitean. Andra-Mariaren bitartez izan ezik, ez gera Jesus'egana eldu bear; bein ere ez eskatu bakarrik.

2.º Nai-ta-ezkoa da gauza guztiak ANDRA-MARIAKIN egitea; au da, egiteko guztietan izpilotzat artu bear degu Andra-Maria. Augaitik gauza bakoitza egin baño lenago, gu ta gure iritzirik onenak utzi; ezereztuta agertu Jaungoikoari, zerurako gauza dan ezer gurez ezin degulako egin; eldu Andra-Mariagana, ta batu bere asmoakaz eta bere bidez Jesus'en asmoakaz ere; geratu Andra-Mariaren eskuetan gurekin eta gugan berak nai duana Jesus'en eta bere Aitaren gorapenerako egin dezan; ez dedilla geratu ezer arima-barruen, ezta egin ere Andra-Mariaren menpean izan ezik.

3'g. Gauza guztiak ANDRA-MARIAGAN egin bear dira. Esan nai da, oitu egin bear gerala,

gure barruan Andra-Mariaren irudi bat asmaten. Irudi au izango da arimarentzat otoi-gela (oratoriua), bere otoi (errezuak), ez entzun egiteko bildur bage, Jaungoikoari zuzentzeko; Dabid'en torrea, areriuetatik ziur egoteko; argiontzi (lampara) iziotua, arima-barrua argitu, ta Jaungoikoaren maitetasunean sututeko; toki santua, beragan ta berakin Jaungoikoa ikusteko. Andra-Maria azkenez izango da arima onentzat gauza guztietan bere gordelekua ta bere dana. Eskatzen badu, Andra-Mariagan eskatuko du; jaunartzen badu, Andra-Mariagan sartuko du, anche euki ditzan bere atsegiñak. Ezer egiten badu, Andra Mariagan egingo du, ta alde ta gauza guztietan bere burua ukatuko du.

4'g. Azkenez gauza guztiak egin bear dira ANDRA MARIARENTZAT; da esatea, Erregiña goratu onen jopuak izanik, guztia egin bear degula bere onerako, bere gorapenerako lenengo ta Jaungoikoenerako guenian. Ukatu egin bear du arima onek gauza geyenetan, uste ere ez degula, sartzen zaigun burukoitasuna (amor propio), ta esan sarritan biotz-barruan: zutzat, Ama maitte ori, egiten det au; edo nua ara edo ona, igarotzen det min nai bidebegatasun a edo bestea.

Egikun-itunak (consejos prácticos).

Ez ziñestu, arima zerurakotu orrek, onena dala Jesus'egana, Jaungoikoagana, zuzen joatea. Zure asmoa, zure egikuna, ez da gauza aundia; baña Andra-Mariaren bidez badijoa, ez da izango zurea

Andra-Mariarena zugan izango da; ta orregaitik goratua, Jaungoikoari agertu lizayokena.

Ez indarririk egin, esan eta egiten dituzun gauzetan arimako atsegiñik artzeko; esan eta egin dana Andra-Mariak lurrean euki zuan ziñesmen bizi-az, eta berak zuri gero emango dizunaz. Utzi, jopuchu orrek, zeure Erregiñar-entzat Jaungoikoa argi ikustea, arima-goraldiak (transportes), gozotasunak, atsegiñak, aberastan-ak; eta zutzat ziñesmen utsa baño ez artu, bere samintasun, banataldi (distracción), gogait eta liortasunaz. Zure Erregin, Andra Mariak, zer-utik egiten dizun guztiari, esan: Amen, orrela izan bedi. Gauza oberik ezin egin zenezake oin-diok. Ez mindu, Andra-Mariaren aurkezkunde (presentzia) gozoa, ain arin asmatu (sentidu) ez arren. Ez da au guztiena, ta Jaungoikoak bere errukitasun andiaz ematen duanean ere, laster galtzen da, norberen barruan sarri sartu ezik. Ezbear au etortzen bazaitzu, biurtu zaite bigun-bigun zeure Erregiñagana, ta aitortu zure errua.

Oneraskun onen ekarriak (frutuak).

Ekintzeak (esperientziak) erakutsiko dizu, emen dirautzudana baño askoz geyago; ta irakatsi dizkizudanetan zintsoa bazera, ekintza onek ekarri dizkizun onak ikusitakoan, arritu ta pozez zoratuko zera. Ekin dezayogun, ba, ta sayatu gaitezcan oneraskun au zintso eramanda Andra-Mariaren gogoa gurekin izan dedin, gure sal-

bagille Jaungoikoagan poztu gaitezen. San Ambrosio'renak dirá itz onek: "*Sit in singulis anima Mariæ, ut magnificet Dominum*„. "Bego bakoitzagan Andra-Mariaren gogoa (arimia), Jaungoikoa goretsi dezan„. "Ez uste atsetegi (paraixua) deitu zayon Abraham'en egolekua, Andra-Mariaren barrua baño gozatsuago zala." Ori dio Gerriko, Abat jakitunak. Ezin esanala ekarri (frutu) eder datoz arimara oneraskun onen bidez, zintzo eramán ezkeró; baño nagosiena da Andra-Maria norberaren barruan bizitzea; ain ze, ez dirudi norbera bizi dala, Andra-Maria norberagan baño; ba esan liteke Andra-Mariaren arimia norberen arima egiten dala. Eta Jaungoikoaren esker (grazia) aundiz, Andra-Maria gure arimako Erregiña egin ezkeró; ¿ze gauza arrigarriak ez ditu egingo? Mirarigille aundia izanik, batezere biotz-barruetan, anche bear egiten du, arimaren beraren ixillik egin ere; ba arimak egikune onen berri jakiñaz beste bage, muskildu ta loitu egingo lituke.

Garbia, baño ugarikorra (fecunda) da-ta, bera bizi dan ariman ernazariten ditu (erne eragin) biotz eta gorputzeko garbitasuna, baita asmo edo intentzioetakoa ere, ta egikune onak ugari. Ez uste, izanik Andra-Maria izaki uts (pura criatura) guztietan ugarikorrena, Jaungoiko-gizona bera egin duana, arima zintsuagan ezkutauta egongo dala. Geratu bage bizi eragingo dio Jesus'egan eta Jesus'i beragan. *Filioli mei, quos iterum parturio, donec formetur Christus in vobis* (Gal. V. 19). Jesus jayo zanean, Andra-Ma-

riaren ekarri (frutua) izan bazan; bere ekarria izaten da, arima bakoitzan jayotzen danean ere. Andra-Maria bizi dan arimetan, Jesus da bere egikune ta ekarria. Azkenez, arima onentzat, Jesus'en ondoren, Andra-Maria da guztia: Berak argitzen ditu beren adimenak bere ziñesmen garbiaz; Berak anditu ta sututzen ditu bere maite-tasunaz; garbitzen ditu bere garbitasunaz; goratu ta zabaltzen ditu bere amatasunaz ¿Baña nora jotzen det? Ikusi bage, ezin esan litezke Andra-Mariaren mirari onek, mirari ziñestu ezindakoak jakitun arroentzat; baita gizonezko ta emakume gogotsu (devoto) geyenentzat ere.

Jaungoikoa Andra Mariaren bidez lenengo lurreratu zanean, apaltasun eta ezerretasunaz etorri zan. Eleiz-amak ziñesten duanez, mundu osoan agindu, ta gero, bizi ta illak erabakitera bigarrenez datorrenean ere, ¿Andra-Mariaren bidez ez alda etorriko? ¿Nola etorriko ote-da? ¿Noiz? ¡Nok daki! Baña nik ondo dakit, egia bada, dan lez, Jaungoikoaren eta gure asmoen artean, zeru ta lurraren artean dagon aldia baño aundiago dagola: etorriko da gizonik jakitunenak eta Liburu Santuetan aituenak (ba liburu santuak illun daude onetan) guchien uste dutenean eta guchien uste duten eran. Ala da guzti ere ziñestu bear da, azkenengo aldian, eta onenian uste dan baño lenago, Jaungoikoak bialduko dituzala Espiritu Santu eta Andra-Mariaren izakeraz (espirituz) beteriko gizonak, eta beren bidez Erregin altsu onek miraririk aundienak egingo dituzala, pekatua kendu ta mundu zatar

onen gañean bere seme Jesu-Kristoren aginpi-dea (erreñuá) jasotzeko: guztia erdietsiko dute gizon santu onek, nere ezerezagaz chachartuta erakusten nagon oneraskun onegaz.

Oneraskun onen ateko (kanpoko) egikizunak.

Eraskun onen barruko egikizunen ostean, ateko (kanpoko) batzuk ere badaude, ez utzi, ez guchitan euki ezin litezkenak.

1.^a Egun izentatu baten gure Jabe Andra-Mariaren bidez geran guztiau eman Jesusi, eta jaunartu, ta otoizketan igaro egun ori. Ondo litzake emate (kontzagrazio) au guchienez urtero berriztea, egun artan bertan.

2'g. Jopuak egin oi duan lez, urtero egun orretan eskiñi zerga (tributo) bat Andra Mariaren joputasunaren ezaupidetzat. Zerga ori izan liteke nekekizun (mortificazio), diruemate, bidaldi nai otoitz (errezu) batzuk egitea. Zoriondun Marin'ek, bere anai San Pedro Damiano'k dion lez, urtero artzen zuan egun onetan astinaldi (disciplina) bat Andra - Mariaren altaraurrean. Ez det nik ainbesterik eskatzen; baña Andra Mariari asko ematen ez bazayo, beintzat ematen zayona, biotz apal eta esker onekoaz eman bekio.

3'g. Ospatu (zelebratu) urteoro, aldan jayerarik aundienaz Andra-Mariari Deikundia (Anunciación, epalla edo martiaren 25'g.); ba egun auxe da oneraskun onen jai nagosia, Jaungoiko-

Semiak gure maitetasunarren artu zuan menpe-
tasuna goratu ta iruditzeke ipiñitakoa.

4'g. Egin egunero, pekatu-beyan lotu bage,
Andra-Mariaren *Agurtzachua*, iru Aita-gure
ta amabi Agur-Maria esanaz. Baita «*Magnificat*»
ere; auxe dalako Andra-Mariaren abesti (kantu)
bakarra, Jaungoikoagandik artutako onakaitik
eskerrak egin, eta berriak eskatzeko. Beintzat ez
esan bage utzi jaunartu ezkerro, eskerrak egiteko:
ola, dio Gersonek, Andra - Mariak berak egin
oi zuala.

Onerañokoa da Z. Grignon'en *Ezkutua*.

Baña ondo etorriko da berak Andra-Mariari emateko
(kotsagrateko) egin zuan urrengo eskintza ipintzea; ganer-
atuaz ezarten dituan uarrak (abertentziak), eta dira onek:

Artu itzazu iru aste, Andra-Mariari eskintza
egiteko gertu (preparatu)zaitez: lenengo asteko
eskari ta egikune on guztiak zure burua ezagutu
ta gorrotatzeko zuzenduko dituzu, barruko apal-
tasuna (umiltasuna) erdietsi dezagun: Suge, sapa
nai osterantzeko patari iguingarri bati lez begir-
atuko diozu zure buruari; ta eskatu argia
esanaz pitian-pitian Ebanjelioko itsuaren antz-
era: «*Jauna ikusi dezadala*». Esan Andra-Ma-
riaren *arrentzak* (letañak) ere.

Bigarren astean eskari ta egikune on guztiak
Andra-Maria zein dan ezagutu ta maitatzeko es-
kiñiko dituzu: egin lenengo asteko otoitz (erre-
guak) ta *agurtza* (errosarioa).

Irugarren astea Jesus ezagutzen emango dezu.
Esan sarritan, «*ikusi dezadala*», ta esan *Salbea*.

Gero, aitortu ta jaunartuta, egin urrengo eskintza. Ondo izango da eskintza au Andra-Mariaren egun bakoitzean berritutzea, esan ditugun iru astien orde, iru egun gertuten emanda.

Jesukristori, Andra - Mariaren bitartez, eskintza.

Ene Jesus, Jaungoikoaren jakituri gizondua! Nik, pekatari zintso-ez onek, zure eskuetan berrizten ditut nire batio santuko eskintzariak. Uko egiten diot betiko, Satanas eta bere asmo ta egikizun gustiei; eta Jesukristo jakituri gizonduari, oso-osorik ematen natzakio nere kurutzea bere atzean nere bizitza guztian, eramateko eta orain-arte baño zintsuago izan nadin. Artzen zaitut gaur, o Maria, nere Ama ta Jabetzat, zerutar guztien aurrean. Nere gorputz eta arima, barruko ta kanpoko ondasunak, lengo, oraingo ta geroko nere egite on guztiak, dana eskintzen dizut; ematen dizudala eskubide oso ta betea nirekin eta nire gauza guztiakin, bat utzi bage, Zuk nai dezuna, Jaungoikoaren goratasunerako, orain eta beti, egiteko.

BILBAO'N, JESUS ALVAREZ'EN IRARKOLAN

1914'g.



